

Ituaren erdian

Betiondo arku-tiro taldeko Basilio Izquierdo presidentearekin, Jose Mari Muñoz presidentea ordearekin eta Isidro Ganuza diruzainarekin arku-tiroaren inguruan jardun genuen solasaldi atseginean Ermuko taberna batean eta klubaren sorreraren berri eman ziguten. “1999. urtean, Ermuko Txirringulari Taldeko kidea nintzela, Udaleko jai-batzordean arku-tiroa egin nahi zuen mutil batekin egin nuen topo”, dio Izquierdok, “eta bileratik irten ginenean bere asmoen berri jakin nahi izan nuen”. Hainbat kirol egin nahi zuen jendea zegoela esan zion mutil horrek, “baina iruditu zitzaidan ideiak ez zeudela oso argi”. Orduan, Izquierdok bere aldetik tira egin eta arku-tiro taldea sortu zuen beste lagun batzuekin. “Handik ez zen beste kirol-talderik irten, gurea bakarrik”.

Bost kide egon ziren taldearen hastapenean eta jende ugari ibili da Betiondo taldean ordutik. “Gu hirurok gara hasieratik gauden kide bakarrik”, dio Izquierdok. “Etorri diren askok berehala lortu nahi izan zituzten emaitza onak, baina pazientzia eta iraunkor-

tasuna behar da kirol hone-tan”, aipatzen du Muñozek. Gaur egun 18 kidek osatzen dute taldea.

Gehlenak jaurtiketa tradizionalan

Arku-tiroak hainbat modalitate ditu. “Konposatua dago, berriena eta zailena dena; arku-tiro olimpikoa ere badago, jaurtiketa olimpikoa bezalakoa baina inongo osagarririk gabe; eta azkenik, jaurtiketa tradizionala instintiboa ere badago”, dio Izquierdok. Betiondoko kide gehienek jaurtiketa tradizionalan hartzen dute parte, baina batzuk jaurtiketa olimpikoa ere egiten dute.

Modalitate batean parte hartzen duenak ez du beste modalitate batean parte hartzen, “batetik bestera alde handia dagoelako”, Ganuzaren berbetan. “Dedikazio handia behar da modalitate bakoitzean ondo aritzeko”, dio Muñozek. Anaitasuna ikastolaren gimnasioan entrenatzen dute Betiondokoek, “aurretik ondo prestatu egoten den tokian, segurtasun kontuak direla-eta”, Izquierdoren berbetan,



eta jende berriari kirola erakustez gain, euren teknika hobetzen dute.

Izquierdo, Muñoz eta Ganuzak euren kabuz ikasi zuten geziak jaurtitzeko, eta ekitearen poderioz emaitza onak lortu dituzte. “Euskadi eta Bizkaiko txapeldunak izan gara gutako hainbat”, dio Izquierdok. Gaur egun ere maila handia mantentzen dute eta arerioek errespetuz hartzen dituzte lehiaketetan.

Urteko lehiaketak

Modalitate bakoitzean distantziak eta jaurtitzeko moduak aldatzen badira ere, gezia ituaren erdira jaurtitzeko da jaurtitzaileren helburua. “Orduan eta erdirago eman, gero eta puntu gehiago lortuko dituzu”, dio Ganuzak. Orokorrean Euskal Herri mailan lehiatzen dira Betiondo taldeko kideak,

baina pare bat alditan Espainiako Txapelketan ere ibili dira Federazioaren gonbidapenarekin.

Denboraldi honetan gelako txapelketetan ibili dira orain arte, hau da, *indoor-txapelketetan*; baina aire libreko lehiaketak hasiko dituzte laster. Oraindik ez dira datak zehaztu, “lehiaketak klubek antolatzen dituztelako eta ez delako erraza horrelako txapelketak antolatzea”. Urtean zehar Euskadiko Ligan lau txapelketa jokatzen dituzte, eta baita Euskadiko Txapelketak eta Bizkaiko Txapelketak ere eta, bestetik, han eta hemen antolatzen diren lehiaketetan ere egoten dira. “Aurten 15-20 txapelketetan izan gara”, Izquierdoren berbetan. Urteek egin ahala punteria zorrozten du talde honek.

Ekhi Velar



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISÉTATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51